

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 3346

*836/2017 EBAZPENA, maiatzaren 31koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, M.<sup>a</sup> Jose Pujana Uriarte andrea Arabako Osasun Mentaleko Sareko Pertsonaleko zuzendari lanpostutik kentzeko dena, Osakidetzako beste postu batean zerbitzuak emateko.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendarinagusiaren apirilaren 22ko 820/2008 Ebazpenaren bidez (maiatzaren 21eko EHAA, 95. zk.), M.<sup>a</sup> Jose Pujana Uriarte andrea Arabako Ospitale Psikiatrikoko Pertsonaleko zuzendari izendatu zen.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Administrazio Kontseiluaren 2010eko urriaren 7ko Erabakiaren bidez, Arabako Ospitale Psikiatrikoa eta Ospitalez kanpoko Osasun Mentala delakoaren izena aldatu zen, eta Arabako Osasun Mentaleko Sarea izena jarri zitzaion.

Aintzat hartuta ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplikatze-koak diren gainerako xedapenak, Zuzendaritza Nagusi honek hauxe,

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– M.<sup>a</sup> Jose Pujana Uriarte andrea Arabako Osasun Mentaleko Sareko Pertsonaleko zuzendari lanpostutik kentzea, Osakidetzako beste postu batean zerbitzuak emateko, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2017ko maiatzaren 31ko lanaldia bukatzen denetik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari, Arabako Osasun Mentaleko Sareari eta Giza Baliabideetako Zuzendariordeztzari.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 31.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA JESÚS GEMMA MÚGICA ANDUAGA.